



2020UDOS0005

Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2020/05/28

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 28/05/2020

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos**Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz**Zinegotziak: / Concejales:**

| | |
|---------------------------|--|
| EH-Bildu | Andoni Alvarez Lete Estibalitz Mujika Tolaretxipi Jon Zulueta Berastegi Garazi Usandizaga Zubiria Julian López Aracama M ^a Teresa Etxeberria Arteun Xabier Fondón Pajares |
| PSE-EE | José Luis Verdasco Gutierrez Ascensión Parrón Peguero Petra Romero Pozo Oscar Mendo González |
| EAJ-PNV | Maria Jose Izagirre Iturzaeta Mikel Arregi Aranburu M ^a Sagrario Ruiz Fernández Imanol Goenaga Egibar |
| Elkarrekin Podemos | M ^a Teresa Santana Rubio |

| | |
|---------------|-------------------|
| Akta Zenbakia | 00000005 |
| Eguna | 2020/05/28 |
| Hasiera | 19.00 |
| Amaiera | 20.40 |

Idazkaria:

Raúl Alvarez López

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

1. 2020/02/27 eta 2020/03/09an egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

2. Behin betiko izaeraz, Udal Inbentarioa, herri-bideak barne, onartzea.
3. Udaleko langileei aldi baterako ezintasun-egoeretan plusak ordaintzea ondoriorik gabe uzteko proposamena
4. Frankismoaren biktimei justizia egitearen alde 2017/07/20 datan Osoko Udalbatzarrak hartutako akordioa dela eta Epaitegi Konstituzionalaren eta Europako Giza Eskubideen Tribunalaren aurrean helegitea jartzeko proposamena.
5. 2020-2022 Dirulaguntzen Plangintza Estrategikoa onartzea.
6. 2019ko Arrekontuaren likidazioaren berri ematea.
7. 2020/1 eta 2020/3 kreditu aldaketa espedienteen berri ematea.

Orden del Día:

- 1.- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de la sesiones celebradas el 27/02/2020 y 09/03/2020.

Parte Dispositiva

- 2.- Aprobación con carácter definitivo del Inventario Municipal, incluidos caminos públicos.
- 3.- Propuesta de dejar sin efecto el abono de pluses en situaciones de incapacidad temporal al personal del Ayuntamiento
- 4.- Propuesta para la presentación de recurso ante el Tribunal Constitucional y el Tribunal de Derechos Humanos Europea en relación al acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación el 20/07/2017 sobre justicia para las víctimas del franquismo.
- 5.- Aprobación Plan Estragico de Subvenciones 2020-2022.
- 6.- Dar cuenta de la liquidación del Presupuesto General 2019.
- 7.- Dar cuenta de los expedientes modificativos de crédito 1/2020 y 3/2020.



- | | |
|---|--|
| <p>8. Andoingo emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III Plana onartzea.</p> <p>9. Garapen Bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programen udal ordenantza aldatzeko, hasierako izaeraz, onartzea.</p> <p>10. Gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza, hasierako izaeraz, onartzea.</p> <p>11. 830/2019 zenbakiko Alkatetzako Zenbakia berrestea.</p> <p>12. 170/2020 zenbakiko Alkatetzako Zenbakia berrestea.</p> <p>13. 2020/05/26an Elkarrekin Podemos udal taldeak aurkeztutako mozioa.</p> <p>14. Gipuzkoako Senideak 2020/02/26an aurkeztutako mozioa.</p> | <p>8.- Aprobación del III Plan para la Igualdad entre mujeres y hombres de Andoain</p> <p>9.- Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza municipal de programas de cooperación con países en vías de desarrollo.</p> <p>10.- Aprobación inicial de la Ordenanza reguladora de las bases para la concesión de ayudas al alquiler de vivienda de jóvenes.</p> <p>11.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 830/2019.</p> <p>12.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 170/2020.</p> <p>13.- Moción presentada por el grupo municipal Elkarrekin Podemos el 26/05/2020.</p> <p>14.- Moción presentada por Gipuzkoako Senideak el 26/02/2020.</p> |
|---|--|

Kontrola

15. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, zehazki, 123/2020 zenbakidunetik 232/2020 zenbakidunera.
16. Zinegotzi-Ahaldunen ebazpenen berri ematea, zehazki, 171/2020 zenbakidunetik 334/2020 zenbakidunera.
17. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 15.- Dar cuenta de las Resoluciones de Alcaldía comprendidas entre la nº 123/2020 y la nº 232/2020.
- 16.- Dar cuenta de las Resoluciones de Concejal-Delegado comprendidas entre la nº 171/2020 y la nº 334/2020.
- 17.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

1. 2020/02/27 eta 2020/03/09an egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Alkate andreak, hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Puntu honetan bakarrik komentatzea bigarren akta, hain zuzen, dela Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde mahaikideen izendepenerako zozketa eta hauteskunde kanpainako panelen banaketa egin zena martxoaren 9an, dakizuenez hauteskundeak gelditu ziren eta berriro errepikatuko ditugu, orduan, jakiteko ekainaren 15an berriro zozketa hori egingo dela 9tan. Decía que la segunda acta se corresponde al pleno extraordinario que se celebró el 9 de marzo con motivo del sorteo para el nombramiento de los miembros de las mesas electorales de las elecciones al Parlamento vasco que estaban previstas para el 5 de abril. Con motivo del Covid fueron anuladas y como todos ustedes saben se van a celebrar en julio y, en consecuencia, el día 15 de junio a las 9 de la mañana volveremos a realizar los sorteos para definir nuevamente los miembros de las mesas electorales. Interbentziorik ez balego, bozkatzera pasako genuke, aldekoak?”

Zinegotzietan bidali zaizkien 2020/02/27 eta 2020/03/09 datetako batzarraldiei dagozkien aktak irakurri ondoren, Alkateak hauen onarpena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, onatzen ditu.



2. Behin betiko izaeraz, Udal Inbentarioa, herri-bideak barne, onartzea.

Ikusirik, Osoko Udalbatzak, 2019ko apirilaren 25ean egindako bileran, hasierako izaeraz onartu zuela Andoingo herribideen sarea jasotzen duen Inbentarioa, Conchi Uriarte Seminario andreak idatzitakoa 2018ko abenduan.

Ikusirik, aipaturiko erabakia eta dagokion espediente administratiboa jendaurrean jarri zirela 2019ko maiatzaren 17ko 92 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki taulan eta web orrian argitaratutako iragarkien bitartez, interesdunek erabaki horri buruz egokiak irizten zituzten alegazioak aurkez zitzen

Ikusirik, jendaurreko epealdian zehar 13 alegazio aurkeztu zirela, zeintzuei buruz Conchi Uriarte Seminario andreak eman duen bere irizpena 2019ko azaroan.

Kontuan izanik, 11. alegazioa aztertu ondoren, honakoa proposatu dela: Urrillondo baserriko lursailetan barrena pasatzen den 53. bidearen zatia inbentariotik kentzea eta 67. bidearen ibilbidea aldatzea, azken bide hori 53. bidearekin lotzeko Artolaborda baserriaren inguruan, bertan dagoen antzinako bide baten bitartez.

Kontuan izanik, udal katastroan ageri diren datuen arabera, 67. eta 53. bideak lotuko dituen antzinako bidea jabetza pribatuko lursailetan barrena igarotzen dela, 2020ko urtarrilaren 8ko idatziaren bitartez, 15 egunetako epea eman zitzaizen kaltetutako jabeei egokiak irizten zituzten alegazioak aurkezteko, aipaturiko bidea bide publiko bezala sailkatu eta Andoingo herribideen sarea jasotzen duen Inbentarioa behin betiko izaeraz onartu aurretik.

Kontuan izanik, epe horretan alegazio bakarra aurkeztu dela, zeina Conchi Uriarte Seminario andreak aztertu eta irizpetu duen 2020ko martxoan.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra eta Ingurumen eta Landaguneko Zinegotzi Arduradunak, PSE-Eeko eledunak, hitza hartu du eta honakoa adierazi du:

“Arratsalde on guztioi, buenas tardes, en el pleno del mes de abril del 2019 se aprobó con carácter inicial el inventario que recoge la red de caminos públicos del municipio. Posteriormente, se abrió el plazo de información pública durante el cual se recibieron una serie de alegaciones, las cuales han sido analizada por la redactora del documento, la Sra. Uriarte, la cual ha propuesto estimar algunas de ellas incorporándolas a este nuevo documento definitivo que traemos a votación al pleno de hoy.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu, eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehena.- Jarraian datozen alegazioak onartzea:

- Ignacio Aizpurua Ormaechea jaunak aurkeztutako 4, zenbakiko alegazioa, eta 91. bidea inbentariotik kentzea.

- Isidro Ansa Etxeberria jaunak aurkeztutako 5, zenbakiko alegazioa, eta 13.1 bidea oinezkoek erabiltzeko zortasuna duen bide pribatuen artean sailkatzea.

- Manuel Zubeldia Echave jaunak aurkeztutako 7, zenbakiko alegazioa, eta bere lursailetik pasatzen den 73. bidearen zatia inbentariotik kentzea eta 28. bidetik Koskaran baserrirainoko bide tartea inbentarioan mantentzea.

- José Luís Iturralde Otaño jaunak aurkeztutako 8. zenbakiko alegazioa, eta inbentariotik ateratzea Arbiza, Igeluts eta Gaztañaidiko lursailetan barrena doan 71. bidea, baina bide horren lehen zatia, errepedearen eta Arbitza (3. Poligonoa 44. lursaila) artekoa, inbentarioan mantentzea.

- Juan M^a Uranga Iturrioz jaunak aurkeztutako 9. zenbakiko alegazioa, eta inbentariotik ateratzea Arbiza, Igeluts eta Gaztañaidiko lursailetan barrena doan 71. bidea, baina bide horren lehen zatia, errepedearen eta Arbitza (3. Poligonoa 44. lursaila) artekoa, inbentarioan mantentzea.

- José Bernardo Artano Echave jaunak aurkeztutako 10. zenbakiko alegazioa, eta inbentariotik ateratzea Arbiza, Igeluts eta Gaztañaidiko lursailetan barrena doan 71. bidea, baina bide horren lehen zatia, errepedearen eta Arbitza (3. Poligonoa 44. lursaila) artekoa, inbentarioan mantentzea.

- Koruko Zurutuza Olabide andreak aurkeztutako alegazioa, eta Urrillondoko lursailean barrena igarotzen den 53. eta 67. bideetako zatiak inbentariotik ateratzea.



- Ione Carrera Otaño andreak aurkeztutako 12. zenbakiko alegazioa, eta 65 bidearen honako zatia inbentariotik kentzea: hasieratik (Etxabe baserriatik) Asu bidearen ondoan dagoen 63. bidera arteko zatia.

Bigarrena.- Jarraian aipatzen diren alegazioak ezestea Conchi Uriarte Seminario andreak egindako txostenetan aipatutako arrazoiengatik. Txosten horietan alegazio bakoitzari emandako erantzunaren kopia bidaliko zaie alegaziodunei:

- Juan Arruti Mujika jaunak aurkeztutako 1 zenbakiko alegazioa, 51. bideari buruzkoa, herribide bezala sailkatzeko behar beste eta nahikoa zantzu badagoelako eta, gainera, Leizaur burdinolara zihoan antzinako bidearen zatia baita. Beraz, 51. bidea herribide bezala sailkatuko da inbentarioan.

- M^a Josefa Orbegozo Amenabar andreak aurkeztutako 2. zenbakiko alegazioa, 51. bideari buruzkoa, herribide bezala sailkatzeko nahikoa eta behar beste zantzurik dagoelako eta, gainera, Leizaur burdinolara zihoan antzinako bidearen zatia baita. Beraz, 51. herribide bezala sailkatuko da inbentarioan.

- M^a Josefa Orbegozo Amenabar andreak eta beste batzuek aurkeztutako 3. zenbakiko alegazioa, 51. era 95. bideei buruzkoa, herribide bezala sailkatzeko nahiko zantzurik badagoelako. Beraz, 51 eta 95 bideak herribide bezala sailkatuko dira inbentarioan.

- Ángel Amenabar Olozaga jaunak aurkeztutako 6. zenbakiko alegazioa, non Murkaio eta Olabide baserrien artean dihoan bide bat herribide bezala sailkatzea eskatzen duen, bide hori ez delako herribide bezala aurreikusten kontsultatutako agirietan. Herribide bezala sailkatzen da bakarrik bide horren lehen zatia Murkaio baserriaren ondoan dagoena.

- Koruko Zurutuza Olabide andreak aurkeztutako 11. zenbakiko alegazioa, 64. bideari buruzkoa, herribide bezala sailkatzeko nahikoa eta behar beste zantzurik badagoelako. Beraz, herribide izango da eta 58. bideraino luzatuko da.

- Ricardo Etxeberria Altuna jaunak aurkeztutako 13, zenbakiko alegazioa, 54 eta 55 bideei buruzkoa. Bide horiek herribide izango dira, baina ibilbidea aldatuta proposatuz.

- José Manuel Alkain Goikoetxea jaunak aurkeztutako alegazioa, proposaturiko aldateten arabera 13. lursailera 67 bidetik sartzerik badagoelako eta, beraz, lursailerako sarrera bermatuta geratzen delako.

Hirugarrena.- Aurkeztutako alegazio batzuk onartu izanaren ondorioz Conchi Uriarte Seminario andreak proposaturiko ondoko aldatetak onartzea:

- 70 bidea 13. poligonoko 85 lursailaren iparraldetik luzatzea 63 bideraino.

- Inbentarioan bide berri bat sartzea, zeina 64. bidetik, Urrillondo eta Benezi baserrien arteko jabego mugatik, 53. bidea zenarekin lotuko dena Urnieta Besabi baserriaraino iritsiz.

- Larramendi inguruan, adar bat sartu behar da (02.1), Hernani eta Andoain arteko A-15 errepidea egin aurretik herribide zaharraren ibilbidea zena.

Laugarrena.- Behin betiko izaeraz onartzea Andoingo herribideen sarea jasotzen duen Inbentarioa, Conchi Uriarte Seminario andreak idatzitakoa 2018ko abenduan. Inbentarioan jasoko dira jendaurrean aurkeztutako alegazioak eta proposaturiko aldatetak onartzearen ondoriozko aldatetak.

Bosgarrena.- Erabaki hau alegaziodunei jakinaraztea, erabakiaren aurka tartera ditzaketen helegiteen berri emanez.

Seigarrena.- Erabaki hau Conchi Uriarte Seminario andreaki jakinaraztea, 15 egunetako epea emanez behin betiko agiria aurkezteko.

Zazpigarrena.- Erabakiaren berri ematea Ondare eta Kontratazio teknikariari.

3. Udaleko langileei aldi baterako ezintasun-egoeretan plusak ordaintzea ondoriorik gabe uzteko proposamena.

Kontuan hartuz Udaleko langileek, aldi baterako ezintasun-egoeran daudenean, onartutako lan-egutegian agertzen diren gaueko, jaiegunetako edo gaueko jaiegunetako plusak jasotzen dituztela.

Ikusirik behin-behineko Administrazio Orokorreko teknikariak 2020/04/20ean egindako txostena, Udaleko langileen aldi baterako ezintasun-egoeran dauden ordainsariei buruzkoa, non, ondorioetan honako hau adierazten da: 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen du funtzionarioei ordainsari-osagarri bat ezarri ahal izango zaiela aldi baterako ezintasuneko (ABE) lehen egunetik, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko prestazioei gehituta zein, **aldi baterako ezintasuna hasten den hilebeteko ordainsari finkoen ehuneko ehunera (100%) iritxiko da gehienez, eta, beraz, plusak,**



ordainsari finkoak ez direnez, ez dira aldi baterako ezintasun-egoeran ordaindu behar (egoera horrek ez du eraginik, eta, beraz, salbuetsita daude lanbide-gaixotasunagatiko, haurdunaldiagatiko edo lan-istripuagatiko aldi baterako ezintasunak).

Langileen ordezkariekin negoziatu ondoren.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2020ko maiatzaren 21eko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintzako Zinegotzi Arduradunak, PSE-EEko eledunak, hitza hartu du eta honakoa adierazi du:

“Teniendo en cuenta el informe jurídico que ha elaborado la TAG de Secretaría del ayuntamiento, en el cual concluye que la Ley de presupuestos generales del Estado del 2018 establece que para el personal funcionario se le podrá establecer un complemento retributivo desde el primer día de incapacidad temporal, que sumado a la prestación de la seguridad social alcance hasta un máximo del 100% de las retribuciones fijas. Como consecuencia de ello, los pluses, al no ser retribuciones fijas, no deben abonarse en situación de incapacidad temporal, pero la Ley da la opción, o deja abierto el supuesto, en los casos derivados de contingencias profesionales y aquellos casos que afectan a la mujer gestante, darles el tratamiento más favorable acordado por la administración. Por ello sometemos a aprobación por parte del pleno dejar sin efecto el abono de pluses en situación de IT, exceptuando los casos derivados de contingencias profesionales y aquellos casos que afecten a la mujer gestante.”

Guzti hau kontuan izanik, Udalbatzaren Osoko Bilkurak eta aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honako erabakia hartzen du:

Lehenengoa: Udaleko langileei aldi baterako ezintasun-egoeretan plusak ordaintzea ondoriorik gabe uztea, beti ere ezintasun egoerak lanbide-gaixotasunagatiko, haurdunaldiagatiko edo lan istripuagatikoak ez badira.

Bigarrena: Akordio honen berri ematea, Udaltzaingoaren kolektiboari, kale langileei, sindikatuen ordezkarietara eta kontuhartzaitelara eta Langileria lantsailei.

4. Frankismoaren biktimei justizia egitearen alde 2017/07/20 datan Osoko Udalbatzarrak hartutako akordioa dela eta Epaitegi Konstituzionalaren eta Europako Giza Eskubideen Tribunalaren aurrean helegitea jartzeko proposamena.

Kontuan izanik Udal honek 2017/07 /20ko Osoko Bilkuran frankismoaren krimenen aurkako kereila aurkezteko erabakia hartu zuela, Tolosako epaitegiaren aurrean eta, horretarako, Alkateari ahalordea eman zitzaioala behar den bezain zabal.

Kontuan izanik, kereila aurkeztu ondoren, Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegiak 295/2019 aurretiazko eginbideak bideratu zituela, eta 2019/12/03ko autoaren bidez ez zuela izapidetzeko onartu. Auto horri udal-ordezkaritzak eta defentsak apelazio-errekurtsoa jarri zioten eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak ezetsi egin zuen errekurtsoa, 2020/04/16ko autoan.

Kontuan izanik, LAIAK ABOKATUEN ELKARTEko kide den Aratz Estomba Iturriza jaunak, 2020/05/05ean, babes-errekurtsoa jarri aurretik, irizpen juridikoa eman zuela.

Kontuan izanik abokatu berak eta data berean Epaitegi Konstituzionalaren aurrean babes helegitea aurkezteagatik aurrekontua aurkeztu zuela:

- izapidetzera onartuz gero (5.132,82€)
- izapidetzera ez onartuz gero (2.566,41€)
- hala badagokio, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian errekurtsoa jartzeagatik (3.871,61 €)

Kasu guztietan, BEZ barne (%21a).

Kontuan izanik Udalbatzak 2017/07/20an hartutako erabakia eta ondorengo Alkatetzaren



301/2019 Ebazpena Gipuzkoako epaitegi eta auzitegiak jarduketara mugatzen zirela, eta jarduketa berriak baimendu behar direla.

Kontutan izanik, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen azaroak 8ko 9/2017 Legearen 118 eta 131.3 artikuluetan esaten dela zerbitzu eta hornidura kontratuak kontratu txikitat eman daitezkeela euren prezioa 15.000,00 euro baino txikiagoa izanez gero eta kasu hauetan espedientea izapidatzeko, gutxienez gastua onartzea eta espedienteari dagokion faktura sartzea eskatzen duela legeak.

Kontuan izanik, kasu honetan kontratuaren beharra arrazoitu dela Udal osoko bilkurak harturiko akordioa bere osotasunean bete behar baita eta, horretarako, kontratazio hau egin behar dela.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa azaltzeko:

“Batzuk gogoratuko duzuen bezala, 2017ko uztailaren 20an, Osoko bilkuran, frankismoaren krimenen aurkako kereila aurkezteko erabakia hartu zen udalbatzar honetan eta Tolosako epaitegiaren aurrean aurkeztu zen. Gipuzkoako probintzia auzitegiak ezetsi egin zuen Tolosako epaitegiak kontrako epairen jarritako errekurtsua, 2020ko apirilaren 16koa autoan.

Como muchos de ustedes recordaran, el 20 de julio de 2107 se adoptó por unanimidad en el pleno presentar una querrela contra los crímenes del franquismo ante los Juzgados de Tolosa. El recurso ante la sentencia denegatoria del juzgado fue desestimado por la Audiencia provincial de Gipuzkoa el 16 de abril del 2020.

Ondorioz, gaur berriro ekartzen duguna izango litzateke babes-errekurtsua jartzea Konstituzio auzitegian Gipuzkoako probintzia auzitegiak emandako 2020ko apirilaren 16ko autoaren aurka eta hala badagokio, baita ere, Giza eskubideen Europako auzitegian.

Lo que traemos y sometemos hoy a votación sería interponer un recurso de amparo ante el Tribunal constitucional contra el auto del 16 de abril del 2020 dictado por la Audiencia provincial de Gipuzkoa y, en su caso, ante el Tribunal Europeo de los Derechos humanos.

Horretarako, batetik, egingo genukeena izango litzateke kontratu txikia Laiak abokatuekin eta izapidetzera onartuz gero ordainduko genuke 5.132,82€, izapidetzera ez onartuz gero, orduan, ordainduko genuke 2.566,41€ eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako auzitegian errekurtsua jartzeagatik ordainduko genituzke 3.871,61€.

En consecuencia, lo que también sometemos a votación sería adjudicar el contrato menor con Laiak abogados, si se admitiera a trámite pagaríamos 5.132,82 €, si no se admitiera a trámite 2.566,41€ y, en caso de que hubiera que recurrir ante el Tribunal Europeo de Derechos humanos de Estrasburgo 3.871,61€.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu, eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehena: Babes-errekurtsua jartzea Konstituzio Auzitegian, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak emandako 2020/04/16ko autoaren aurka, eta, hala badagokio, Giza Eskubideen Europako Auzitegian. Ondorioz, Alkateari baimena ematea aipatutako ekintzak gauzatzeko behar diren abokatu eta prokuradoreen aldeko agiriak eta ahalordeak sinatzeko. Xede horretarako beharrezkoak dituen udalaren eskumen guztiak emanez.

Bigarrena: Onartzea Andoingo Udala ordezkatzeko eta defendatzeko abokatuak kontratatzeari dagokion gastua, frankismoaren krimenen aurkako kereilan, Konstituzio Auzitegian eta, hala badagokio, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian, aurrekarietan zehazten den zenbatekoan, 2020ko ekitaldiko Udal Aurrekontuko “zerbitzu juridikoak eta aholkularitzakoak” partidaren kargura.

Hirugarrena: Aipaturiko zerbitzua emateko kontratu txikia LAIAK ABOGADOS SCP enpresari esleitzea NIF J75130997. Kontratuaren prezioa 2019ko maiatzaren 5an aurkeztutako eskaintza



ekonomikoaren arabera hauxe litzateke:

- Izapidetzera onartuz gero (5.132,82€)
- Izapidetzera ez onartuz gero (2.566,41€)
- Hala badagokio, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian errekurtsioa jartzeagatik (3.871,61 €)

Kasu guztietan, BEZ barne (%21a).

Prezioa aurkeztutako fakturak zerbitzu teknikoen oniritzia jasotzen duenean ordainduko da.

Laugarrena: Aratz Estomba Iturriza J. eta Garbiñe Gómez Pérez A. abokatuak izendatzea LAIA ABOGADOS SCP taldekoak, Andoingo udalari defenda dezaten prozedura horretan. Horretarako Udal honek prokuradoreen alde 2009/04/27an (381. protokoloa) emandako ahalordeez baliatuko dira. Ahalorde hauek Alkateak zabaldu ahl izango ditu beharrezkoa balitz.

Bostgarrena: Ebazpen hau LAIA ABOGADOS SCP enpresari jakinaraztea.

Seigarrena: Ebazpenaren berri ematea Kontu hartzailetza lansailari.

5. 2020-2022 Dirulaguntzen Plangintza Estrategikoa onartzea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea arautzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da; izan ere, legean egituratzen diren askotariko tresnekin batera, zuzenean eragiten du diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzea.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8.1 artikulua ezartzen duenez, Administrazio Publikoetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakunde, alde aurretik, Diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte plan hori aplikatuta lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak.

Era berean, lege horren azken xedapenetatik lehenengoak ezartzen du artikulua hori oinarritzkoa dela, eta administrazio publiko guztiei aplikatu behar zaiela.

Beraz, arau hori betez, beharrezkoa da Udalak Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egitea, diru-laguntzak eman aurretik eta hainbat urtetarako. Plan Estrategikoan, sustatu beharreko arloak eta gaiak jasotzen dira, bai eta diru-laguntzak emanez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak eta finantzaketa-iturria ere.

Alor bakoitzeko teknikariek egindako proposamenak ikusita.

Ikusirik, Ogasun eta Ekonomia Batzorde Irizpenemaileak 2020/05/26(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa adierazi du:

“Kasu honetan, dirulaguntzak buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorren 8.1 artikulua ezartzen duenez administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundeak alde aurretik dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte.

Plan horretan ezarritako lortu nahi diren helburuak, ondorioak eta horiek lortzeko behar diren epeak. Aurreikusi daitezkeen kostuak eta finantziaketa iturriak.

Según el artículo 8.1 de la Ley 38/2003 del 17 de noviembre, general de subvenciones, establece que los órganos de las administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo deben concretar en un plan estratégico las subvenciones, los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y las fuentes de financiación, así como la fórmula de concesión. Hain justu, ekartzen duguna da dokumentu tekniko bat, non ezartzen diren udaletxean daude dirulaguntza, hitzarmenak eta konbokatoria publikoak eta ezagutzen duzen dokumentu hau eta normala denez, bizia egongo da, eguneratuko dugu eta gaur hartzen dugu baita ere hemen, Ogasunean



hartutako konpromisoa, izan zena aurrekontuekin batera eguneraketa bat aurkeztuko genukeela. Es un documento técnico que recoge todas las convocatorias públicas, lo convenios y las subvenciones que actualmente existen en el ayuntamiento y que, lógicamente, es un documento vivo que habrá que seguir actualizando año a año, y como ya hicimos en la comisión de Hacienda, adquirimos el compromiso de que, junto con los presupuestos que se presenten de cara al 2021, se actualizarán todas aquellas partes que correspondan del documento.”

Jarrian, Mujika andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honaka esateko:

“Arratsalde on, guk, gure aldetik, aipatu nahiko genuke plan estrategiko hau lehengo astean bidali zitzaigula zehazki 20an arratsaldeko 4,30an, eta proposamena zela 22an goizean onartzeko eta guk, iruditzen zitzaigun lan oso mardula zela hain epe gutxian behar bezala, aztertze eta ekarpenak egin ahal izateko tarte bat eskatu genuen eta, dakizuen bezala, asteartean, Ogasun batzordera eraman genituen gure zalantzak eta baita ekarpenak ere. Ez ziren kontuan hartua izan, aipatu zelako orain egin beharkoa tramite bat dela eta Alkateak ondo esan duen bezala, dokumentu bizi bat dela, baina, guk uste dugu tramite bat ez lukeela tramite huts bat izan behar eta oraintxe, behintzat, jaso beharko lituzkeela udalak bultzatzen ari den ildoak eta horiek gutxienez agertu beharko lirakeela. Tramite bat izanda ere, ez duela batere zentzurik gaur bertan onartzen dugun plan estrategikoa zaharkitua egotea onartzen ari garen momentuan. Hori esaten dugu, Ogasuneko erabaki proposamenean oso garbi adierazten du, ez?”

“Dirulaguntzen plan estrategikoa zehaztu beharko dituela plan hori aplikatuta lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, azaldu den bezala eta gaur ematera goazen hainbat dirulaguntzen helburuak ere, plan estrategiko horretan ez dira agertzen, esate baterako, Kultur aniztasuna sustatzea, ez da aipatu ere egiten. Kultur ona balorean jartzean ere ez da aipatu ere egiten, eta gero ikusten duguna da udal arteko sailen arteko inkoherentzi bat, ze plan estrategikoak jasotzen ditu deialdi publikora egiten dira dirulaguntzak baina baita nominalak ere, eta batzordean ere aipatu genuen bezala, badaude dirulaguntzak nominal batzuk ematen ari garenak plan estrategiko honek jaso ere ez dituenak egiten. Badakigu ez dela batere lan erraza, badakigu hausnarketa fasean daudela hainbat eta hainbat sail eguneratzeko bai legedi aldetik bai taldeen izaerangatik, hori guztia kontuan edukita ere eta badakigu, benetan, ahalegin handi bat dagoela, uste dugu badaudela gai batzuk erraz konpondu zitezkeenak eta hala jakinarazi genituen batzordean eta oraintxe ere aipatu berri ditut.

“Bestetik, gaurko plenoan ere, Berdintasun planaz hitz egingo dugu eta planan jasotzen duen 5. helburuan honela esaten du: udalak berdintasunarekin duen konpromezua ikustaraztea berdintasun kultura bultzatuz eta ikusten dugu berdintasun plana jasotzen dituen hainbat helburu ere dirulaguntza bidez sustatzeko izango direnak, horiek ere gaur ez ditugula jasoko eta ez jaso bakarrik, saila berbera ez da agertzen plan estrategiko honetan. Berdintasun planarekin jarraituz, genero ikuspegia, lan prozeduretan txertatzearen garrantziaz hitz egiten dugu askotan eta gobernu honen helburutan gaur ikusiko dugu honetan ere horixe azaltzen da. Uste dugu ekintza estrukturala izanda derrigorrezkoa dela, behintzat, berdintasun txosten bat izatea eta berdintasun legeak ere horrela jasotzen duelako eta guk behintzat ez dugu ikusi. Esan bezala, kezkarriena iruditzen zaigu kontuan edukita egin beharreko urrats bat dela, kontuan edukita hainbat gauza aldaketa prozesuetan daudela eta zailtasunak daudela. Dokumentu bizi bat dela eta eguneratzeko aukera baina esan bezala, dokumentua onartzen ari gara gaur egungoa gaurkotua egon gabe. Uste horrengatik guk ezezkoa bozkatuko dugu.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, nik bakarrik argitzearren aipatu duzu, adibidez, Kultur sailan ondarearen aipamenik ez dela egiten dirulaguntzetan, Berdintasunen aipamenik ez dela egiten. Hori batzordean komentatu nuen bezala ere, esango dizut nik teknikoarengandik jaso dudana erantzuna eta hauxe da: zeharkako lerroak dira, ez dago bakarrik Kultur bai eta sail guztietako lerroak dira Berdintasuneko, ondarearena ez, ondarearena Kultur lerro bat da, baina, dakizun bezala, abiatuta daude moldaketa dirulaguntzak emateko moduan eta moldaketa batean pixka bat ordenatu nahian dabilta, lan berezi bat egiten ari dira kontu guzti horrekin eta gaur egun ez da ondarearen inguruko



dirulaguntzak zuzenik ematen, ematen dena da Burdina taldeari ematen zaio ondarea mantentzeagatik, baina Burdina taldea, zuk dakizun bezala, Kultur taldeen barruan txertatuta dago eta horrela ematen zaio dirulaguntza Kultur taldeen deialdian. Lanketa hori egiten ari dira, aurrera ematen ari dira, gainera, badakizu lanketa oso pottoloa dela egin beharrekoa eta horretan daude, ez du esan nahi horrek datorren urteari begira edo ordenatzen direnean edo aldaketaren bat dagoenean txertatu behar ez denik, alderantziz, txertatu beharko dira aldaketa guztiak eta jaso beharko dira dokumentu honetan, ze aipatu dudan bezala, dokumentu bizi bat da. Baina, momentu honetan azterketa guzti hori egiten ari dira. “

Berriro ere, Mujika andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bi gauza. Gauza bat da ondarearen taldeei zuzenean dirulaguntza ematea ez, plan estrategikoa hartzen baduzu daude helburu orokor batzuk eta helburu orokor horietan, tradizioz gain eta sormenaz gain, ez dago ez kultur aniztasuna ezta ondarea. Eta dira helburu orokor batzuk, gure ustez. Orduan, plan estrategiko hau ez da zuzenean taldeei emateko dirulaguntza bat, ulertzen da ariketa ere alderantziz dela, udalak zen lan ildo sustatu nahi ditu, zein dira zehaztu nahi dituen helburua, eta helburu horien arabera dauden taldeei, aurkezten diren taldeei horretarako daude deialdi publikoa eta horretarako daude nominatiboak, orduan, ondarearena ulertzen dut Andoainek oso kontua du lan ildo dela eta ulertzen dut helburu orokorretan agertu da eta, eta gainera, horregatik esaten genuen batzordean, ekarpen hauek kontuan hartuz gero, eta hurrengo plenora ekarriz gero, behintzat gaurkotua egongo litzateke dokumentua. Gaurkotua legoke, ze ez du eskatzen bi esaldi gehitzea, hiru esaldi gehitzea da. Berdintasun plana zeharkako, zehar lerroz lantzen da baina Berdintasunean daude helburu batzuk sailen bidez egiten direnak eta beste batzuk sail berbera bultzatzen dituenak eta hemen, irakurri baduzue Berdintasun plana justu dago beka deialdi bat, horren sustatzaila Berdintasun saila izango da eta orduan gaur hori ez jasotzeak ez du zentzurik dena dakigunean, apostea mankomun bat daukagula Berdintasunarekiko saila berbera ez egotea eta hori ere zen saila berbera gehitzea, orduan, uste dugu hemen dagoela borondate falta hilabete gehiagoz luzatuta ez zelako ezer gertatuko, gardentasunaren izenean legeak esaten duen bezala, askoz ere gardenagoa plan estragiko hau, ze gauzak falta zaizkio eta hurrengo hilabetean onartuko litzateke eta ez genuke epe labur-laburrean aldaketaren beharrik izango.”

Alkate andreak, erantzuten du:

“Vamos a ir por partes, lo primero, y es importante destacar, que además creo que también ya lo comentamos en la comisión y es importante decirlo. El plan estratégico, como muy bien ustedes saben, tiene carácter previo al establecimiento de cualquier subvención, siendo un requisito esencial y previo a la regulación de la misma. Para la concesión de cualquier subvención, debe estar recogida en el plan estratégico y será de aplicación la ordenanza general de subvenciones y las bases correspondientes de la convocatoria. Y eso, como muy bien ustedes saben, cada vez que se hace una subvención o se hace una convocatoria pasa por la comisión correspondiente y allí se estudia y ahí es el momento en el que tenemos que plantear todos esos criterios transversales que tenemos que incluir, cuando es el momento de decir todas esas cosas. Nos sorprende bastante que se cite, y en ese sentido nos sorprende bastante que se cite por la concejala de Bildu que además estuvo en la legislatura anterior, que se ha dado poco tiempo, porque, entre otras cosas, este es un documento que necesitamos tener en el ayuntamiento porque tenemos que cumplir con la legalidad y actualmente el ayuntamiento no tiene plan estratégico. Y como muy bien todos ustedes saben, el ayuntamiento tiene que tenerlo.

“El único plan estratégico que se ha realizado en este ayuntamiento se hizo en 2014. En 2015 no se actualizó, y desde entonces, que tuvieron una legislatura entera, las personas que están ustedes hoy aquí, algunos de los miembros que estaban también en la corporación anterior, para actualizarlo, para poner en marcha todas esas cuestiones que ustedes ahora mismo están diciendo, ¿y por qué no lo hicieron? Porque pasó el 2015, el 2016, el 2017, el 2018, el 2019 y ustedes no desarrollaron ningún plan estratégico. Nosotros teníamos claro que teníamos que hacer uno, y en eso hemos estado,



tratando de hacerlo y de recoger aquí todas las cuestiones que considerábamos que tenían que estar y ahora mismo es verdad que ha sido una recopilación y actualmente contiene lo que dicen todas esas convocatorias, subvenciones y convenios.

“Efectivamente estamos de acuerdo, y lo impulsaremos, en que cada vez que se desarrolle un convenio, a lo mejor hay que mirar los efectos pretendidos, los objetivos; a lo mejor, hasta ahora, se ponían objetivos sin definir cuestiones transversales que son importantes, pues cada vez que surja una convocatoria pública, cada vez que surja una subvención, cada vez que surja un convenio miremos también todas esas cuestiones, porque si no, nos va a volver a ocurrir lo mismo. Si los documentos no contienen esos criterios transversales, el plan estratégico en su generalidad tampoco las tendrá, entonces, lo primero que tenemos que hacer es, cada vez que va a comisión cada una de esas cosas, allí es el momento que tenemos para analizarlo... y eso sí que ha ido pasando por todas las comisiones. A lo mejor tenemos que pararnos todos a mirar más que estén todos los objetivos, que estén todos los efectos pretendidos y, en ese sentido, luego incluirlo. Con lo cual, consideramos, usted cita, por ejemplo, el hecho de que el departamento de Igualdad no está aquí, incluso habla de falta de transparencia, de que no se ha hablado con la técnico...ah bueno, barkatu, ulertu dizut lehen teknikariarekin ez dela hori aipatu, vale, barkatu, porque, orduan, gaizki apuntatu dut. Lo he apuntado mal y rectifico porque si efectivamente no ha dicho eso.

“Lógicamente se ha hablado con todos los técnicos correspondientes y, en ese sentido, efectivamente, hay una beca que está prevista para el 2021, que figurará en el plan estratégico que más tarde abordaremos y que no sé si se citará concretamente la beca, pero sí se hablará del tercer plan de igualdad y se dirán las líneas generales de por dónde va a ir, que además va unido al departamento de Euskera y al de Cultura, pero es una beca que se va a ejecutar en el año 2021, cuando se vaya a definir todas esas cuestiones de cómo se va a hacer la beca, de qué contenidos va a tener, de qué objetivos, ahí es cuando se definirá todos y es cuando... por eso también, entendemos perfectamente que junto con los presupuestos del año que viene, se vaya a actualizar este documento y se incluyan todas las cosas que estén previstas desarrollar a lo largo del 2021, pero en estos momentos todavía, a lo mejor, no están definidos todos esos criterios y, en ese sentido, no está incluido. Y por de pronto, no hay ninguna subvención más que a día de hoy se dé desde el departamento de Berdintasuna como tal. Es verdad que si se cita, por ejemplo, el caso de Zuena, que ustedes citaban, pues ustedes mismos lo tramitaron y por ahora se hacía mediante factura.

“No hay un convenio específico firmado con ellos. Quizá, puede ser y eso el departamento de Igualdad, lógicamente, lo valorará y determinará si tienen que firmar un convenio correspondiente o si va a haber más entidades que se vayan a presentar, eso ya, lógicamente, será el propio departamento de Igualdad quien lo valore y de cara al 2021 determinará la mejor manera de desarrollarlo y de llevarlo a cabo. Gracias.”

Erantzuten du, Mujika andreak:

“Hemen badago kontu bat eta igual da ulertzeko modua, Zuena-rena faktura bidez egiten zen bai, eta zuk esan duzu ez genuela plan estrategikorik; egia da, ez genuen eta egindakoa urrats bat da baina ulertzen dugu gobernu berri bat osatu dela, plan estrategikoa egitera zoaztela eta zuek zuen helburu, lehentasunak markatu behar dituzuela, ez? Udal bezala, eta Zuena-ri ematen zaion dirulaguntza, lehen aipatu dudan helburuan ondo esaten den bezala, Berdintasunari ikusgarritasuna eta garrantzia eman nahi bazaio, da bultzatu nahi dugun lan ildo bat, Zuena-ri zergatik ematen diogu dirulaguntza hori? Orduan, ariketa, nire ustez, ez da zeintzuk, ze dirulaguntzak ematen ditugu? eta horren baitan agertu behar dute, horiek agertu behar dute, baina udala ze lan ildo garatu nahi ditu? Eta ze helburu ditu? Eta horiek agertu beharko dute, gero posible da dirulaguntza batzuk gainean jartzen du, ez? Kopuruetan aldatuko dira, ez dago konpromezurik, bueno, hori, aldaketak egongo dira, baina zuk sustatu nahi baduzu berdintasuna jakinik gainera badagoela dirulaguntza bat, ba erreza zen hori ere sartzea.”

Alkate andreak, dio:

“No vamos a repetirnos. Desde luego que nos sorprende que insistan en eso porque efectivamente



la legislatura pasada entonces cuáles eran sus objetivos, ¿no tenían?. ¿No había efectos pretendidos, no había...? Es que quiero decir, tuvieron una legislatura completa para desarrollar este documento, entonces que se critique uno que en menos de un año este equipo de gobierno ha llevado a cabo, que efectivamente, es mejorable, que el Covid ha estado en medio, pues efectivamente, nosotros no tenemos ningún problema en asumir que se puede mejorar, por descontado, pero actualmente queríamos la fotografía que ya tiene el ayuntamiento de la situación que hay, y sobre todo y ante todo, cumplir con una legalidad que hasta ahora no se cumple y que, cada vez que se daba una subvención, cada vez que se hace un convenio, tiene que ir un informe de reparo, diciendo que no tenemos plan estratégico, insisto. Es importante que al menos tengamos un documento, mejorable, por descontado, todos los documentos son mejorables, por eso hemos dicho que todos los documentos tienen que ser vivos. Y en eso trataremos de mejorarlo y por descontado que se llevará a todas las comisiones cada vez que se lleve una convocatoria pública, un convenio, una subvención para que el resto de partidos hagan todas las aportaciones correspondientes. Pero, al menos, vamos a tener ya un documento, vamos a cumplir la legalidad y vamos a tratar de que no nos pongan informes de reparo cada vez que damos una de esas ayudas. Gracias.”

Mujika andreak erantzuten du:

“Bukatzeko, bakarrik esan, baietz, eta aipatu dut urratsa garrantzitsua dela azpimarratzen dugula, ez dela hobetu nahi izan dokumentua, ze batzordera eraman zidan, batzordera eraman zidan eta aukera egon zen hilabete atzeratzeko, hori oso... borondate kontua zen.”

Alkate anderak erantzuten du:

“Ya hemos esperado más de cuatro años.”

Mujika andreak erantzuten du:

“...urtetan zu zinen beste aldean guk erantzuten genizun eta erantzuten genizun, ezta? Ba, bakoitzak bere ardua jaso beharko ditu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Nuestro grupo lo ha entendido como un documento puramente técnico en el que todas las comisiones han pasado lo que en este momento había. Es verdad que un documento así enseguida va a estar desactualizado, incluso mañana, ya puede ser que esté desactualizado hoy mismo, pero bueno hay que empezar con algo, entonces lo entendemos como un documento técnico que es necesario y que siempre va a haber desactualizaciones, lo entendemos así, como una formalidad y por eso vamos a votar que sí.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin-Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin, honakoa erabaki du:

Lenengoa.- Andoingo Udalaren 2020-2022 ekitaldietarako Diru-laguntzen Plangintza Estrategikoa onartzea. Honela dio, hitzez hitz:

(Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren testu osoa transkribatzen da)

Bigarrena.- Diru-laguntzen Plan Estrategikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

6. 2019ko Arrekontuaren likidazioaren berri ematea.

Alkate andreak hitza hartu du eta berak emandako 229 zenbakiko Alkatezako Ebazpenaren berri eman du zeinaren bidez, 2019ko aurrekontuaren likidazioa onartzen da, honakoa esanez:

“ Puntu honetan, ba hori, hain zuzen, 2019ko likidazioa aditzera emango dugu, lehenik eta behin esatea diruzaintzako izakin likidikoak 2019ko abenduaren 31an izan zirela 10.872.836,86 €rekin. Diruzaintza gerakina garbia 2019koa izan dela 9.639.710,82 eurokoa, horietakoak 7.543.950,39 € izango lirarteke gastu orokorretarako, eta orduan, aurrekontuko emaitza, ajusteari egin ondoren, izango



liratekeela 2.092.568,84 € eta 2019tik txertatzen diren kredituak izango direla 2020ko aurrekontuetan izango direla 2.471.789,68 €. Los fondos líquidos a 31 de diciembre del 2019 eran de 10.872.836,86 €, ha habido un remanente de tesorería líquido del ejercicio del 2019 de 9.639.710,82 €, de los cuales 7.543.950,39 € son para gastos generales. El resultado presupuestario, una vez realizados los ajustes sería de 2.092.568,84 € y los créditos del 2019 que se van a incorporar al presupuesto de 2020 quedarían en 2.471.789,68 €. Baita ere esatea, zor bizia daukagun zor bizia, berriro diot, 2019ko abenduaren 31n izan del 6.533.335,12 €, eta horiek dira, batez ere, banketxeekin IDAE prestamoa daukaguna eta baita ere, beste prestamo bat Eusko Jaurlaritzarekin, papeleraren derribo egiteko. Asimismo, decía, informar o dar cuenta de que la deuda viva a 31 de diciembre de 2019 es de 6.533.335,12 euros, de los cuales tenemos diferentes créditos con entidades financieras, un préstamo IDAE de eficiencia energética de luminarias y un préstamo con el Gobierno vasco para el derribo de la papelera, este último a devolver en el 2023. Eta baita ere komentatzea, egonkortasunaren aldetik, betetzen dugula, helburu guztiak betetzen dugutula, helburuak eta gastu arauak. Finalmente decir también que cumplimos con los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera y la regla de gasto. Hori izango litzateke pixkatxo bat, ez dakit zalantzaren bat al dagoen?

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on denei. Honen inguruan aipatu nahiko nuke, uste dut aipatu izan dudala nola herritar bezala, 2019ko aurrekontuak onartu ziren pleno hartan izan nintzela eta han atentzioa deitu zidan gerakinarekin oposizioak izan zuen jarrera, alegia, exekutatu gabeko partidak zeudelako. Gaur hona ekartzen da 2019tik, ikusten dugu, 2,5 gelditu direla gerakinan eta pleno hartan atentzioa deitu zidana, pixka bat, harridura bihurtzen da aurrekontu horiek zuek kudeatu ahal izan dituzuelako 6 hilabetez. Agian esango dizue gaizki egina zeudela aurrekontuak baina aukera izan zenuten zuzentzeko edo aldaketak egiteko edo partidak aldatzeko, hala ere, harridura hori esanda, guk ez dugu, ez dira kritika horretan eroriko, bai aipatu nahi dugu, guk aurreikusitako kalkulu hau bete direla, aipatu genuen aurrekontuan negoziatzen ari ginenean 6 milioi inguruko, kalkulu bat egina geneukan, orain merkataritza berraktibatze 600.000ko espedientea izanda, espedientearen aldaketa izanda, hor 5,5ra jeisten da, gero egia da, Miriamek lehengoan, kenketa batzuk eta adierazi zizkigula baina egia dena da kopuru handi bat gelditzen dela eta gure ustez, kopuru handi bat eta hori albiste ona da, beti da albiste ona eta gaur egun gauden egoeran are gehiago. Bagenuen inbertsio plan bat baina argi dago hori berregin beharko dela eta gauza berbera gertatzen da 2020ko aurrekontuekin. Hor, Foru Aldundia bere kabuz, unilateralki, 2.115.000 € gutxiago emango dizkigula erabaki du, horretatik bidali zuen gutunarekin bat egiten dugu, gure ustez, ez delako modua udalekin kontatu gabe erabaki hori hartzea eta adierazi genizuen e-mailaz baina gaur adierazi nahi dugu publikoki, ba bat egiten dugula zure eskutitz horrekin. Aurrekontuak berregin beharko dira eta lehentasuna finkatu beharko dira eta alde horretan, duela aste batzuk, uste dut krisi mahai batean esan nizuela eskua luzatzen genuela, aurrekontu horiek berregiteko eta gaur berriro gauza berbera esan nahi dizuegu eta eskua luzatzen dugula aurrekontu hauek berregiteko. Guk orain arte beste gaiekin edo beste gai batzuekin eduki duzuen prozedura alboratu eta denok elkarrekin egitea proposatzen dizuegu. Bi aukera daudelako, bat da gehiengoa baliatuz erabakiak zuek hartzea edo bestela, denok elkarrekin gobernuak eta oposizioak erabakitzea. Gaur egungo egoera ekonomiko hau ulertzen dugu aurreko udal gobernuak egindako kudeaketa onaren emaitza ere badela eta orduan animatu nahi zaituztegun gurekin negoziatzera eta adostera aurrekontu berri hauek. Ariketa hori egiteaz eskatzen dizuegu edo proposatzen dizuegu, ulertzen dugulako denon artean berrikusten baitugu aurrekontu hauek guztiontzako hobeto izango dela eta batez ere herritarrentzako. Horixe esan dut.”

Alkate andreak erantzuten du:

“Bakarrik erantzuteagatik, por contestar, batetik eskertzen dugula publikoki baita ere gaur esan duzuna, joan den udalbatzarran beste era batera komentatu zenuten, orduan hori eskertzekoa eta alde horretatik ba mila esker. Komentatu zenuen bezala, nik neuk bidali nuen diputazioari, ba hori, eskutitza bat, Andoingo udalaren izenean ba esanez ez nengoela ados nola ziren gauzak, alde horretatik ba guztiz ados. Bestetik, dakizuen bezala, han baita ere eskatzen zen mahai bat elkarrekin hitz egiteko eta badirudi agian aterako dela, horren zain gaude eta horren arabera ikusiko ditugu nola



bideratzen ditugun gauzak eta gero, bestetik, baita ere aipatzea, baita ere Ogasun batzordean guk aurkeztu genituenean likidazioa eta han ya esan genizuen, noski, aurrekontuak begiratu beharko genituzkeela eta berregin beharko genituzkeela eta bueno alde horretatik baita ere gure aldetik luzatzen genuela zure ekarpen guztiak bai EH-Bildukoak eta bai Elkarrekin-Podemoakoak eta alde horretatik a ver orain ya likidazioaren zenbakiak jakinda eta nondik nora dihoazen ezagutu ondoren, has gaitzen denok hori egiten.

“Decía por un lado que agradecemos al portavoz de Bildu, que efectivamente en el último pleno se señalaron unas cuestiones que no eran correctas, que agradecemos que públicamente hoy se diga que comparten la carta que se envió desde la alcaldía a Diputación y, en ese sentido, como también ya adelantamos en la comisión de Hacienda cuando presentamos esta liquidación, desde luego, que por nuestra parte, lógicamente vamos a tener que revisar todos los presupuestos, les extendemos, estaremos encantados de que nos hagan llegar todas las propuestas, tanto de EH-Bildu como Elkarrekin-Podemos para ir tratando entre todos, de dar una vuelta a los presupuestos, efectivamente, como todos ustedes muy bien saben vamos a contar con bastantes menos ingresos, y bueno, a ver cómo podemos hacer frente entre todos a la situación que tenemos entre manos. Mila esker.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Cuando me toca hablar ya no me dejan nada. Suscribir lo que ha dicho Andoni, lo de la carta, por supuesto, suscribimos totalmente y ahora sí que nos va a tocar a todos dejar nuestras diferencias a un lado y empezar todos juntos, cada uno somos de una casa y lo sabemos pero aquí estamos todos para lo mismo. A ver si podemos hacer que se note. Nada más.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

7. 2020/1 eta 2020/3 kreditu aldaketa espedienteen berri ematea.

Alkate andreak hitza hartu du eta berak emandako 216 eta 231 zenbakiko Alkatzeko Ebazpenen berri eman du zeinaren bidez, “Covid-19”ak eragindako krisiaren aurkako neurriak hartzen dira, horretarako 2020/1 eta 2020/3 zenbakiko kreditu espedienteak onartuz, honakoa esanez:

“Hemen bi espediente dira 2020ko lehena izango litzatekeena Eusko Jaurlaritza, dakizuen bezala, gizarte larrialdetarako laguntzak programaren kreditua handitzeko aparteko diru-partida emendatzea izango litzatekeena hemen egiten dena eta izango lirarteke 38.172 eurokoa.

“La primera modificación de crédito es como consecuencia de una subvención que nos llega desde Gobierno vasco para las AES, las ayudas de emergencia social, y van a... como consecuencia también del Covid se ha hecho un refuerzo por parte de Eusko Jaurlaritza, del Gobierno vasco y la modificación de crédito que haríamos es de 38.172 euros. Eta gero, bigarrena, 2020ko 3a dena eta orain hain justu aipatu duguna, izan da Covid-19a dela eta, denok dakizuen bezala baita, ba bai merkataritza, ostaralitza eta zerbitzutako sektoreetan eta langile autonomoen kasuan arazo larriak jasaten ari dira eta alde horretatik Andoingo udalak izan nahi duena da dirulaguntza batzuk ateratzea haietzako zuzenduta eta denok artean pixkatxo bat laguntzeko. Eta kasu honetan izango lirarteke 600.000 eurokoa.

“En este segunda caso, la resolución 3 del 2020 corresponde, como consecuencia del Covid-19 todos sabemos las dificultades que está teniendo la ciudadanía en general y en particular el comercio, la hostelería y algunos sectores afines y las personas autónomas y se destinaron 600.000 euros, que son los que figuran en esta resolución, destinados a esas personas para tratar de minimizar, aunque sea un poquito las consecuencias tan graves que están teniendo como consecuencia de la pandemia. Mila esker.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8. Andoingo emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III Plana onartzea.

Kontuan hartuz 4/2005 Emakume eta Berdintasun Legeak, otsailaren 18koak bere II. tituluko I. kapituluko 15. artikuluko honako hau dio:“(...)udalek berdintasunerako planak eta programak onetsiko



dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren jarraibide eta gidalerroekin bat; halaber, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide materialekin eta ekonomi eta giza baliabideak eskainita, beren sail, erakunde autonomo eta menpean edo lotuta dituzten gainerako ente publikoetan aipatutako planek eta lege honek jasotzen dituzten neurriak benetan eta modu koordinatuan betetzen direla bermatuko dute.

Kontuan hartuz Berdintasun batzordeak Andoingo berdintasunaren II planaren ebaluazioa eta berdintasunaren III planaren egitearen alde bozkatu zuela.

Kontuan hartuz Emakundek 2020ko apirilaren 27an egindako txostenak honako hau dio: “Andoingo Udalak aurkeztutako dokumentuan plana aurrera eramateko beharrezko diren egiturei erreferentzia egiten die”.

Ikusirik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Batzorde Irizpenemaileak 2020.05.14 datako irizpena.

Romero andreak, Berdintasuneko Zinegotzi Arduradunak eta PSE-EE udal taldeko zinegotzia, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on guztiari, gaur osoko bilkura honetara Andoingo udalaren III Berdintasun plana ekarri dugu onartua izan. Udal honek datozen urteetan izango duen tresna emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sinatzeko. Joan den azaroan planaren ziriborroa aurkeztu zen batzordean eta horren ondoren teknikari adituekin eta gizarte eragileekin alderatzeko prozesu bati ekin zitzaion. Plan metodologiari dagokionez, udal sailtetako arduradurekin tokiko mugimendu feministarekin Zuena emakume elkartearekin eta jabekuntza eskolako dinamizatzaileekin lan egin du. Halaber, deialdireki baten bidez, hainbat pertsona bildu ziren eztabaida talde batean.

“Esku hartzeko ardatzean ez da aldaketarik egin oraindik ere lau dira emakumeen ahalduntzaren gobernu ona ekonomia eta gizarte antolaketa eraldatzea eta indarkeria matxistarik gabeko udalerrria, baina ekin zen egokitzapenak egin dira, ziriborroa arloko ardunekin eta tokiko eragileekin kontrastatu ondoren. Planak 2023ra arteko iraupena izango duela aurreikusten da baina Covid-19aren krisiari aurre egin behar izan diogunez eta bizitzen ari garen egoera dela eta, atzeratu behar izan da planaren lanketa. Asmoa zen lehenago ekarri zena plana onartzeko baina denborek ez dute posible eragin orain arte eta ekintza batzuk aurten ezin izango dira gauzatu, beraz, aurrerago baloratu beharko da beste urtebetez luzatzeko aukera edo. Plan hori legeak eskatzen duen bezala emakundeari igorri zitzaion berrikusi zen. Guztira hamasei helburu eta 70 ekintza dira eta horien artean, mainstreaming garen lan nindoaren jarraipenaren garrantzia nabarmen daiteke, baita pare bat berrikuntza ere.

“Alde batetik, gizonetara zuzendutako ardatz bat, hiru ekintza barne hartzen dituen, eta bestetik, LGTBI kolektiboari zuzendutako ekintza bat. Berdintasunerako batzordetik igaro zenean, udal honetan ordezkariak duten indar politiko guztiek aho batez onartu zuten eta bertatik, eskerrak eman zitzaizkien administrazioko arlo eta mahaietako talde teknikari eta jakina gizartearen berdintasunaren alde lanean ari diren kolektibo guztiei. Espero dut III plan hau onuragarria izatea berdintasun parekideagoa lortzeko. Zentzu horretan, jarrai dezagun berdintasuna, elkarlanean eraikitzen.

“Como he adelantado, hoy traemos para su aprobación el III plan de igualdad para los próximos años en el ayuntamiento de Andoain, el pasado noviembre ya presentamos un primer borrador en la comisión de Igualdad, y tras eso, se pasó al proceso de contraste tanto con la parte técnica como con la parte social. Como he comentado también, en los ejes de intervención ha habido cambios, siguen siendo 4 pero se han realizado adaptaciones en algunas de las acciones. En principio se prevé que la duración sea hasta el 2023, pero como he explicado, la intención hubiera sido traerlo antes, pero nos ha pillado en medio todo este tema del Covid, entonces, evidentemente, alguna de las acciones que estaban ya previstas para el 2020 se van a ir retrasando, y hemos metido un párrafo más para dar la posibilidad de prorrogarlo durante un año más. 16 objetivos, 70 acciones, nos gustaría destacar la continuación del trabajo del mainstreaming entre los distintos departamentos del ayuntamiento y como he adelantado antes, un par de novedades, por un lado, una serie de acciones dirigidas directamente a los hombres y también al colectivo LGTBI. Y como he adelantado también, agradecer lo que es en la comisión, todos los grupos políticos el talante ha sido muy positivo, agradecer también a todos los responsables de área que han intervenido en el proceso, a las



asociaciones de mujeres y, como he dicho antes, todas estamos aquí para trabajar en una igualdad más paritaria y si puede ser en colaboración, mejor. Gracias.”

Jarraian, Mujika andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gure aldetik esan pozgarria dela guretzako ere gaur plana unea ekarri zena. Azkenean, berdintasunaren aldeko urrats bat gehiago dela, urrats garrantzitsu bat eta, batez ere, uste dugu aurreko planaren ebaluaziotik abiatuta, horrek ere bide bat egin izanak erakusten duelako nondik joan behar den ere, hortik abiatu, hausnartu eta ekarpenak egin ahal izan ditugula eta elkarlaneko emaitza ona izan dela uste dugu eta argi ikusten dela bide horretatik beti ere emaitzak hobeak izan daitezela eta orain tokatzen dela guztion konpromezuarekin jarraitzea eta ahalik eta gehien aurreratzea. Gure aldetik ere eskerrak eman parte hartutako eragile, tekniko eta guzti-guztiei.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu, eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehena: Andoingo emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana onartzea.

Bigarrena: Planak 2020 eta 2023 urteen arteko iraupena izango du, eta azkeneko urte horretan baloratuko da urte batez edo bi urtez luzatzea beharrezkoa den.

Hirugarrena: Akordio honen berri ematea Udaleko lansail guztiei, Emakunderi, ZUENA emakumeen elkarteari eta Andoingo Asanblada Feministari.

9. Garapen Bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programen udal ordenantza aldatzeko, hasierako izaeraz, onartzea.

Ikusirik, *Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programen udal Ordenantza* aldatzeko proposamena.

Ikusirik, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak 2020ko otsailaren 12an egindako txostena.

Ikusirik 2020ko martxoaren 02 datan emakume eta gizonen Berdintasun Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileak 2020ko martxoaren 03an emandako irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, baita, udalbatzarraren osoko bilkurak, 2016ko maiatzaren 26an, onartu zuen garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programen udal ordenantza eta data horretatik Gizarte zerbitzuak sailak finkatu beharko irizpide objektiboak kontutan hartuta dirulaguntzak eman ohi dira. Gardentasun ikuspuntuari jarraiki, irizpide horiek orain arte ez zeuden zehaztuta ordenantzan bertan, egin dugun da, hain justu, ordenantzan ipini eta horrela denontzako eskuragarri egoteko.

“El pleno del ayuntamiento en sesión del 26 de mayo del 2016 aprobó la ordenanza municipal de programas de cooperación con países en vías de desarrollo y desde esa fecha se han venido otorgando subvenciones de acuerdo a criterios objetivos que se habían fijado por el departamento de Servicios sociales, pero, desde un punto de vista de transparencia, es preciso que en la propia ordenanza se hagan públicos esos criterios y que estén incorporados en la ordenanza en vigor. Precisamente es lo que se ha hecho con esta modificación, incluirlos en la ordenanza y sería lo que sometemos a votación.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu, eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehena: Onestea, hasierako izaeraz, *Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzaren programen udal Ordenantzaren* aldaketa.

Bigarrena: Administrazio-espedita jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletzeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedita aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu



ahal izateko.

Hirugarrena: Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

10. Gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza, hasierako izaeraz, onartzea.

Ikusirik, *Andoingo herrian gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza* proposamena.

Ikusirik, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak 2020ko maiatzaren 15an egindako txostena.

Ikusirik, Emakume eta Gizonen Berdintasun Teknikariak 2020ko maiatzaren 13an egindako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileak 2020ko maiatzaren 22an emandako irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Gaur, ordenantza berri bat aurkezten da, hain zuzen ere, Andoingo herrian gazteentzako etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzei bruzkoa. Laguntza hauen helburua gazte-eskatzaila ohiko bizilekurako etxebizitzaren errenta zati batean ordaintzen laguntzea da eta, baldin eta etxebizitza hori errentapeturik baldin badute eta hura kontratatzeke konpromezua hartzen badute dagokion deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.

“Lagun edo pertsona gazteentzat izango litzateke 18-30 arteko urte bitartekonetzak eta, etxebizitza, noski, Andoainen egon beharko luke.

“Traemos también la ordenanza reguladora de las bases que establecen la concesión de ayudas para el alquiler de viviendas para jóvenes en el municipio de Andoain, cuyo objetivo es el de contribuir parcialmente al pago del alquiler de la vivienda destinada a domicilio habitual de las personas jóvenes que ya dispongan, bien porque estén en arrendamiento de dicha vivienda o se comprometan a contratarlo en el plazo de un mes tras la fecha de la finalización del plazo de presentación de solicitudes de la correspondiente convocatoria. Está dirigida a personas jóvenes entre 18 y 30 años y el arrendamiento debe ser que esté en el municipio de Andoain. Batez ere, baita ere, komentatzea hauek eskatzeko, lehenik eta behin, gazte lagun dirulaguntzak eskatu beharko luketeela eta haiek lortuko ez balukete, ba kasu honetan, Andoaineko ordenantzan, dirulaguntzetara aukera izango lukete.

“Diru kopuru aldetik, izango litzateke, dirusarrerak izango beharko lituzkete 9.000 eta 14.000 tartean, orduan, dirulaguntza izango litzateke errentaren %50a, 14.001-17.500 bitarteko izango balitz, dirulaguntza izango litzateke errentaren %40a, 17.501 eta 21.500 euroko bitarteko dirusarreretan dirulaguntza izango litzateke errentaren %30 eta 21.501 eta 26.000 bitarteko dirusarrerak izango balituzkete, orduan dirulaguntza izango litzateke errentaren %20a. En cuanto a la cuantía de la ayuda, si los ingresos brutos fueran entre 9.000 y 14.000 euros sería una subvención del 50% del alquiler, entre 14.001 y 17.500, sería el 40%, entre 17.501 y 21.500 sería del 30% de la renta, y 21.501 y 26.000 sería el 20% de la renta. Baita ere azaltzeko, dirulaguntzaren zenbatekoa hilean, gehienez, 250 eurokoa izango litzateke, eskaera bakoitzeko, gehienez ere, 12 hileroko.

“La cuantía de la subvención se establece en un máximo de 250 euros al mes por cada solicitud para un periodo máximo de 12 mensualidades.

“Baita ere azaltzeko, eta hau bai aipatu nahi dut etxebizitzaren mahaiaren proposamena izan zela, batez ere, ba behin prozedura amaituta egindako eskaera eta dirulaguntzen kopuruak aurrekontu partida agortzen ez badu, eta hemen esan behar dugu diru partida izango liratekeela 50.000 eurokoa, kasu honetan, partida hori agortu ez bagenu, kasu honetan, udalak eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki ahal izango du edo komenigarriagoa balitz, ba epea ekitaldi ekonomikoren zehar irekita utziko luke.

“Esto fue una propuesta que se hizo en la mesa de vivienda y que se ha incorporado a la



ordenanza, en la que, si una vez finalizado el procedimiento, el número de solicitudes y subvenciones no superara la partida presupuestaria, que para el año 2020 está fijada en 50.000 euros, en ese caso, se podría, o bien abrir un nuevo periodo de presentación de solicitudes o, si fuera más conveniente, dejar el plazo abierto durante el ejercicio económico para que las personas, aunque en este momento no estén en disposición de pedirlo, a lo largo del año sí se pudiera acceder a las mismas.”

Jarraian, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, hau gehiago dihoa plan estrategikoaren metodoloaren bidetik, berdintasun planaren metodoren bidetik baino, badirudi gaur beste konsesu batzuk badaudela eta espero dugu hau izatea lan estilo honetan egiten den azkeneko ordenantza. Komentatu dugu Gizarte zerbitzuen batzordean hitz egin genuen, etxebizitza mahaian, baita ere erregistratu genuen idatzietan, eta gaur gatoz hori berrestera eta herritarrek ere edo behintzat hau ikusten dutena ba jakin dezaten hau nola landu den, ez?”

“Pena handiz ikusi dugu prozesua, iruditzen zaigulako dela ordenantza inportante bat, ordenantza oso garrantzitsu bat, horrelako gauzak egiten denengan eta oso garrantzitsua esaten da estrategikoak. Gure ustez bada gazteei begirako politikak aktiboak direlako, publikoak, eta uste dugu inportantea dela eta pena handiz bizitzen dugu eta frustrazio handiarekin horrela egin izan, ez? Azkar eta inolako parte hartzerik bermatu gabe. Gogoratu behar dugu partida hau sortzean da ere 2019an aurrekontuetan, PSEk egindako proposamen bat txertatzen dugu hala moduz eta ez negoziazio oso polit baten ondorioz, baina txetatzen dugu partida adierazteko zein borondatu dugun gaia aurrera ateratzeko baina egia da gure ustez merezi duen lanketarako eta momentu horretan etxebizitzan mahaian beste gai oso inportante batekin lanean ginenez, pues agortzen da agintaldia eta ez da horrela egiten, ez? Eta orain berrartzen da eta gu guztiz ados gaude. Gure sorpresa zein den, ematen zigula 6 eguneko epea ordenantza honetaz eztabaidatzeko, hau da, ez da erabiltzen ezta ohiko metodo minimoa, ohiko metodo minimoa ez dakit denentzat pentsatzen da batzorde batera eramaten da, bertan egiten da aurkezpena, bai politikoa eta bai teknikoa, argitzen dira zalantza batzuk, galdera batzuk eta ondoren hurrengo batzordean diktaminatzen da.

“Hori da ohiko prozedura minimoa, hemen ez da, hemen bidaltzen da e-mailez ziriborro bat gaztelera hutsez, eta hurrengo asteartean diktaminatzen da eta horrela goaz eta esaten dugu, eh, utzi pixka bat, honetaz hitz egin behar dugu guztiok, lasai egiten dugu sarrera eta esaten dugu deitu dadila etxebizitza mahaia, aktibatu dezagun ohiko prozedura gai hautarako etxebizitza mahaia gure ustez, aurreko agintaldian ondo funtzionatu zuen eta denek egin genuen eroso marko horretan, ez? Ekarpinak egiten, herri eragileekin batera eta orduan, guk esaten duguna da goazen aurrera, eta esaten zigun, bai arrazoi duzue, bueno orduan, astelehenerako iritsen da eta esaten dugu, bueno, vale, badoa, rekulatu dute eta badoa berriz ere prozedura martxan jartzera baina gure sorpresa da astelehenean egiten dela, eramaten dugula proposamen metodologiko batzuk, deskartatzen dira momentuan, hartzen dira ekarpen batzuk herrieragileekin egindakoa, zuzenketa batzuk aldatzen da eta hurrengo goizean bidaltzen da, ostiralean diktaminatu eta gaur ????, orduan, gure ustez hau ez da modua lan egiteko, ez da modua lan egiteko ez oposizioarekin baina uste dut gobernuarentzat ere ez dela modu egokiena, uste dut beste pauso bat behar dela gauzak egiteko.

“Guk proposatu genuen etxebizitza mahaian, eragile berriak deitzea etxebizitza mahaira, gure ustez, etxebizitza mahaia ez da marko itxi bat, merkataritza mahaia marko itxi bat, azkenean dira lan metodoak, kobernantza ereduak dira, orduan, guk esaten genuen, aurrekoan egin behar genuen ordenantza hori egiteko eragile hauei deitu genituen bezala, deitu ditzagun, eragile berri batzuk gai honekin interesa izan dezaketenak, eta zeintzuk dira? Dira gazteak, dira emakumeak, dira, bueno, badaude koliktiboak parte hartu dezaketenak, hitz egin dezagun beraiekin, ez? Aurten ez, aste honetan urtebete bete dela udal hauteskundeetaz gure komunikazio taldeak egin du bideo bat, jasotzen duena kanpainaren momentu batzuk eta horretan Garaziren esaldi bat dago, ez? Askok hitz egiten da gazteei buruz baina oso gutxi gazteekin, ez, eta bueno, hau da adibide praktikoa bat, ez? Politikak egiten ditu gazteekin, gazteentzat, gazteen iritzia jaso jabe. Gure ustez, prozedura ez da txukuna izan, baina



esaten dut baita zuentzat era, gobernu ikuspegitik ez da inolako transbersalitatearik egin departamentuen artean honetaz hitz egiteko, gazteria departamentuak ez du parte hartu, ez du parte hartzen, esan nahi dut egiten dela egin den karriletik, inolako ekarpenik jaso gabe.

“Guk galdera batzuk egin genituen, horrelako ordenantza bat egiteko, galdera batzuk ditugu, galdera pertinenteak, galderak dira: zenbat gazte gaude Andoainen 18 eta 30 urte bitarte? Zebat bizi dira gurasoekin eta zenbat bizi dira bere gurasoen etxetik kanpo edo independizatuta? Zenbat alokairuan? Zenbat erositara? Alokairuan bizi direnak zein baldintzetan bizi dira? Pisu konpartituak? Ez? Familia dute? Ez dute? Zenbat daude lanean? Zenbat kobratzen dute batez bestekoan? Gurasoen etxean daudenetik zenbatek nahi lukete independizatu eta ezin dute soldatagatik edo zeagatik? Esan nahi dut, datu hauek badituzue? Oposizioak ez ditu baina zuek badituzue? Zuek, ordenantza hau berredaktatzarako orduan hausnarketa hau egin duzue? Esan nahi dut, nahiko galdera pertinente direlako eta azkenean hitz egiten ari gara ordenantza bat, gure ustez, izan behar duena eraginkorra eta orduan hemen etxebizitza mahaian eragile batek ere esaten zuen, esaten zuen ba ez dakit nik oso eraginkorra izango den zeren eta gazteleku programatikan kanpo gelditzen direnetatik ez ditut asko ikusten ordenantza honetan sartu ahal izango dutenik, esaten zuen, hausnarketa moduan, gauza horiek, uste dut, hitz egitekoak direla, pasatzen dira gaintetik eta egiten da korrika betean eta gero nik esaten dut, ze arrazoi dago hauen azkar egiteko? Presa, espero dut ez esatea lau urte izan dituzue eta ez duzu egin, bai, baina beste gauza batzuk egiten genituelako. Esan nahi dut, zuk ere sei egunero ordenantza bat egingo bazenu orain eta agintaldi bukatu arte, 6 egunero eta ordenantza bat egin utziko zenituzke ordenantzak eta gauzak egin gabe eta horrek zer esan nahi du, orduan, hurrengo agintaldian ya ezin dela iritzirik eman, ez, ez, ez, politika ez da hori.

